


2008 Autocross-erako Agindu Nagusiak



Gipuzkoako Automobilismo Federazioa  
Federación Guipuzcoana de Automovilismo

# **2008 AUTOCROSS-ERA KOA ARAUDI NAGUSIAK**

## **1. Artikulua- DEFINIZIOAK**

**1.1.** 2008 Autocross-eko Txapelketa, Kopa eta Gipuzkoako Sarietarako proba puntuagarri guztiak F.G.A.-ren Egutegi Ofizialearen barne hartuko dira.

## **2. Artikulua- ARAUDI BEREZIA**

**2.1.** Argitaratzeko baldintza.

**2.1.1.** Proba bakoitzari dagokion Araudi Berezia Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioak argitaratutako ereduarekin doitu beharko da eta erabat ados egon beharko du ondorengoek adierazitako baldintzekin:

- C.D.I. (aplikatzea badagokio).
- 2008ko Txapelketa, Kopa eta Gipuzkoako Sarietarako Agindu Komunak.
- 2008 Autocross-eko Gipuzkoako Txapelketarako Agindu Nagusi hauek.
- 2008 Autocross-eko Gipuzkoako Txapelketaren Araudi Nagusia.
- F.I.A.-ren Buletinean ala F.g.A.-k argitaratutako beste edonolako araudi ala interpretazio.

**2.1.2.** Araudi Bereziak Antolatzaileak ezarritako xedapen eta baldintza gehigarri guztiak garbi aipatu beharko ditu, zein araudi-testuekin ados egon beharko baitira.

**2.1.3.** Gutxienez Proba hasi baino 45 egun lehenago, F.G.A.-ren Idazkaritzara Araudiari dagokion proiektuaren bi ale igorri beharko dira nahitaezko onarpena lortzeko. Proiektua jasotzen denetik gehieneko 15 eguneko epean, F.G.A.-k Antolatzaileari burutu ahal diren aldaketak jakinaraziko dizkio, edo bestela onartu egingo du.

Behin-betiko Araudia argitaratua izango da eta bere bi ale F.G.A.-ren Idazkaritzara igorriko dira, gutxienez Proba hasi baino 30 egun lehenago.

**2.1.4.** Gipuzkoako Txapelketarako proba puntuagarri bakoitzeko araudi Bereziaren portadan, hala nola Araudiaren Osagarrietan eta sailkapen-orrietan, Txapelketaren izenburua eta F.G.A.-ren logotipo ofiziala azaldu beharko dute.

**2.1.5.** Araudiaren amaieran pilotuentzako adierazpen erabilgarriak eranstea gomendatzen da: zirkuituaren egoerari dagokion planoak, egiaztapenen kokapenari dagokion planoak (teknikoak eta administratiboak), pistaren trazatua, etab.

**2.2.** Araudi Bereziari dagokion aldaketak – Osagarriak – Iragarki-Taula.

**2.2.1.** Araudi Bereziari dagozkion xedapenak, C.D.I.-aren 66 eta 141. artikuluetan erabakitakoari jarraiki soilik aldatu ahal izango dira.

**2.2.2.** Aldaketa ala xedapen osagarri oro data eta zenbakia duten osagarrien bidez jakinaraziko da, zein Probaren Araudi Bereziaren barne egongo baitira.

**2.2.3.** Probari dagokion Araudi Bereziaren osagarriak Probaren Idazkaritzan eta oharrentzako Taula Ofizialean erakutsiko dira. Halaber partaideei zuzenean jakinaraziko zaizkie, zeinek jaso izanaren adierazpena sinatu beharko baitute, zilegi de kasu orotan.

**2.2.4.** Kirol-Komisarioen Elkargoa eratu aurretik zabalduko osagarri orok, F.G.A.-ren idatzizko onarpena jaso beharko du.

**2.2.4.** Kirol-Komisarioen Elkargoa eratu ondoren zabaldutako osagarri oro, aurretiaz honen onarpena beharko du.

**2.2.5.** Partaideak zuzenean informatuko dira, hala dagokion kasuetan. Hala ere, partaideren bat lokalizatu ezin izango balitzake, 2008 Txapelketa, Kopa eta Gipuzkoako Sarietarako dagozkien Agindu komunitarioaren 5. Art. Adierazitakoa aplikatu ahal izango da.

**2.3.** Araudiaren aplikazioa eta interpretazioa.

**2.3.1.** Lasterketa-Zuzendaria probaren garapenean zehar Agindu Nagusiak, Araudi Nagusia eta Araudi Berezia aplikatzeko arduraduna da.

Era berean, Kirol Komisarioei lehenago aipatutako araudian aplikagarria den erabaki garrantzitsu oro jakinarazi beharko diete.

**2.3.2.** Araudiak aplikatzerakoan Lasterketa-zuzendariaren erabakien aurka doan erreklamazio oro, Kirol-Komisarioei transmitituko zaie aztertu eta erabakia hartzeko (C.D.I.-ren 171. Art. Eta hurrengoak).

**2.3.3.** Araudian aurreikusten ez den kasu oro Kirol-Komisarioek aztertuko dute, zein erabaki bat hartzeko baimendu bakarrak baitira (C.D.I.-ren 141. Art.)

**2.3.4.** Araudia interpretatzerakoan zalantzaren bat izanez gero, gaztelerazko testuak egiaztatuko du. Lehiaketetarako proba puntuagarrietan F.I.A.-k frantsesez argitaratutako testuan egiaztatuko du.

**2.3.5.** Lehiakideak pilotuaren ardura bere gain hartzen du.

**2.3.6.** Pilotuak lehiakidearen ardura bere gain hartzen du azken hau ibilgailuaren barnean ez dagoenean.

**2.3.7.** Lehiakideak ala pilotuak eginiko desegokia, iruzurrezkoa ala kirol-izpirituaren aurkakoa den ekintza oro, Kirol-Komisarioek epaituko dute, zeinek penalizazio bat inposatu ahal izango baitute, hau KANPORATUA IZATERA iritsi ahal izanik.

### **3. Artikulua- OFIZIALAK**

**3.1.** 2008 Gipuzkoako Txapelketa, Kopa eta Sarietarako Agindu Komunitarioaren 13. Artikuluan zehaztutakoa aplikatu ahal izango da.

### **4. Artikulua- INSKRIPZIOAK**

**4.1.** Inskripzio – Inskripzioen eskaera.

**4.1.1.** Autocross-eko Gipuzkoako Txapelketaren probaren batean parte hartu nahi duen lehiakide orok Organizazioak eskuratutako inskripzio-eskaera bat bidali behar du, behar bezala beteta, Probaren Idazkaritzara inskripzioen amaiera-ordua baino lehen. Idazkaritzako helbide osoa, telefonoa, fax, etab. eta inskripzioei dagokion amaiera-data nahiz –ordua Araudi Nagusian zehaztu beharko dira.

**4.1.2.** Inskripzioak hauen muga-ordua baino lehen fax bidez burutu ahal izango dira ala gutunaren bidez zeinen zigilu-marka data berekoa izango baita, honekin batera inskripzioari dagokion zenbatekoa joango delarik. Eskakizun hauetakoren bat beteko ez balitz jasotako inskripzio oro baliogabetuko da.

**4.1.3.** Atzerritarrak diren lehiakideentzat, zein Europar Batasunekoak ez baitira, baimena C.D.I.-ren 70. Artikuluan ezarritakoarekin ados egon beharko du.

**4.1.4.** C.D.I.-ren 74. Artikuluan zehaztutakoari jarraiki, antolatzaile batek inskripzio bat errefusatu ahal izango dute, arrazoiak zehaztera behartuta egon gabe. Kasu honetan interesatua beranduenez Probaren baino bi egun lehenago informatu beharko da.

**4.1.5.** Araudi Bereziak partaideen kopurua mugatuko balu eta hau gaindituko balitz, onartutako taldeen zerrenda eta hauen harrera-hurrenkera ezarriko da. Gertatu ahal liratekeen bajak estaltzeko erreserbak esleitu ahal izango dira.

**4.1.6.** Inskripzio-eskaera sinatzeagatik soilik, lehiakidea bere kabuz eta bere gidariaren izenean C.D.I.-k eta bere eranskinen onartutako kirol-jurisdikzioen mende jartzen da, baita Agindu Nagusi hauen xedapenen eta probari dagokion Araudi Bereziaren mende ere.

**4.1.7.** Inskripzioa amaitutakoan, inskripzio-buletinean ezingo da aldaketarik burutu. Ibilgailua aldatzea Proba hasi baino 24 ordu lehenago izango da zilegi, betiere hasieran inskribatutako ibilgailuaren Maila berekoa baldin bada. Ordezko ibilgailuaren zilindrada ez da ordeztutakoarena baino handiagoa izango.

**4.1.8.** Proba hasi aurretiko egiaztapen teknikoetan, ibilgailu bat inskribatu zeneko Talde eta/edo Mailaren ezaugarriekin egokituko ez balitz, ibilgailu hau, Komisario Teknikariek proposatuta, Kirol Komisarioen erabakiari jarraiki dagokion Talde eta/edo Mailara transferitu ahal izango da.

**4.2.** Inskripzioko eskubideak.

**4.2.1.** Inskripzioko eskubideei dagokion gehieneko bat ezartzen da, zein ondorengoak baitira:

—Antolatzaileak kontratatutako aukerazko publizitatea onartzen bada: **60 €**.

—Antolatzaileak kontratatutako aukerazko publizitatea onartzen EZ bada: **120 €**.

**4.2.2.** Inskripzio-eskaera ez da onartuko inskripzioko eskubide guztiekin batera ala Lehiakidearen A.D.N.-ak igorritako errezibo batekin aurkezten ez bada.

**4.3.** Inskripzioko eskubideen diru-itxultzea.

Inskripzioko eskubideei dagokion erabateko diru-itxultzea burutuko da ondorengo kasuetan:

**4.3.1.** Eskatzaileei zeinen inskripzioa errefusatu izan baita.

**4.3.2.** Proba ospatuko ez balitz.

**4.3.3.** Bere borondatez kanpoko arrazoiren bategatik, zein Erakunde Antolatzaileak onartuko bailuke, irten ezingo luketen lehiakideei.

## **5. Artikulua- ASEGURUAK**

- 5.1.** Antolatzaileak aseguru-poliza bat kontratatuko du, ondorengo arriskuak bermatuz:
- 5.1.1.** Nahitaezko Erantzukizun Zibila, indarrean dauden xedapenetan hitzartutakoari jarraiki.
- 5.1.2.** Proban parte hartzen duten automobilek eraginiko istripu ala suteen erantzukizuna den diru-kopuru haien ordainketa, istripu bakoitzeko 3.000.000 €-ko zenbateko bateraino.
- 5.1.3.** Istripuaren kasuan, lehiakideak ala bere ordezkariak Kirol-Komisarioari idatziz jakinarazi beharko dio, ala honi ezin izanik Lasterketako Zuzendariari, ahalik eta azkarren eta Proba amaitu bitartean. Adierazpen horretan istripuaren zirkunstantziak azalduko dira, baita lekukoen izenak eta helbideak ere.
- 5.1.4.** Lehiakideei gogorarazten zaie Organizazioak kontratatutako aseguru-polizak antolatzaile eta gidari titularrek eraginiko kalteak soilik babesten dituztela. Gidariak ala automobil partaideek jasan ahal dituzten kalteak kanpoan geratzen dira.
- 5.1.5.** Erantzukizun Zibileko aseguru horretaz gainera, lehiakideek eta gidariak, askatasuna dute kontratatzeko, bere kabuz eta komeni zaienaren arabera, egokitzat jotzen dituzten banakako aseguruak.

## **6. Artikulua- EGIAZTAPEN TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOAK**

- 6.1.** Talde partaide guztiak bere osotasunean aurkeztu beharko dira bere ibilgailuarekin Probaren Programari jarraiki aurreikusitako egiaztapen teknikoetara (eta/edo administratiboetara).
- 6.2.** Egiaztapenetara bere borondatez kanpoko arrazoiren batengatik (Kirol Komisarioek hala ulertzen badute eta betiere partaideak arrazoi hori behar bezala azaldu ahal izan badu eta atzerapena egiaztapenak amaitu aurretik jakinarazi bada) berandu aurkezten den lehiakide oro, ixteko orduaren ondorengo 30 minuturainoko denborapean egiaztatu ahal izango da, bere mailako egiaztapenentarako aurreikusitako ordutegiari jarraiki. Kasu horretan 60 €-ko isunarekin penalizatu ahal izango zaio. Epe hori pasa ondoren ez du irteerari ekiteko baimenik izango.
- 6.3.** Irteera debekatu egingo zaio F.I.A-ren Segurtasun Araudiarekin ("J" eta "M" Eranskinak) bat ez datorren ibilgailu orori.
- 6.4.** Egiaztapenak nahitaez Probari dagokion Programan aurreikusitako ordutegiari jarraiki burutu beharko dira.
- 6.5.** Egiaztapen administratibotan 2008 Gipuzkoako Txapelketa, Kopa eta Sariei dagozkien Agindu Komunitario 10. Artikuluan xedatutakoa egiaztatuko da.

- 6.6.** Egiaztapen teknikotan 2008 Gipuzkoako Txapelketa, Kopa eta Sariei dagozkien Agindu Komunetako 10. Artikuluan xedatutakoa egiaztatuko da eta bereziki:
- a) Segurtasun Neurriak.
  - b) Karrozeriaren itxura.
  - c) Pasaporte Teknikoa ala Jarraipeneko Fitxa.
- 6.7.** Antolatzaileak egiaztapenen ondoren burutzeko briefing bat aurreikusi beharko du. Bertara proban inskribatutako lehiakideak eta gidariak aurkeztu beharko dira. Bertaratzen ez denak 60 €-ko isuna barne duen penalizazioa jasango du.

## **7. Artikulua- HURRENKERA-ZENBAKIAK**

- 7.1.** Partaide bakoitzari esleitutako zenbakia ikusgarri azaldu beharko da ibilgailuaren albo banatan, eta sabaian kokatutako panel baten albo banatan (III. Mailako ibilgailuetan).
- 7.2.** Nahasketa eragin lezakeen beste edozein zenbaki debekatuta egongo da. Sabaiaren gaineko zenbakia ertz bizirik ez duen euskarri bertikal batean modu iraunkorrean eta ibilgailuaren ardatz longitudinalaren aurre/atzeko planoaren gainean kokatuta egongo da. Panelak 24x35 cm-ko dimentsioak izango ditu.
- 7.3.** Lehiaketako zenbaki bat galtzea eskusiorako arrazoia izan ahal izango da ibilgailua behar bezala identifikatu ezin bada, eta betiere Kirol-Komisarioen irizpideari jarraiki.

## **8. Artikulua- IBILBIDEA**

- 8.1.** Gutxieneko luzera: 600 m
- 8.2.** Gutxieneko zabalera: 10 m
- 8.3.** Zuzen baten gehieneko luzera: 150 m
- 8.4.** Zirkuitu ororen inguruan, pistarekiko 1'20 m-ko altuera duen ibilgailuen irteera babesteko lur-muna bat mantenduko da, publikoarentzako bertatik 10 metro baino gutxiagoko distantzia batean kokatzea.
- 8.5.** Lur-zoruaren orografia dela eta muna hori burutzea zilegi ez den kasuan, publikoa pistaren kanpoko ertzetik 30 m baino gehiagoko distantzia batean kokatuko da.
- 8.6.** Distantzia urriagoak zilegi izango dira publikoa pistarekiko 2 m-ko altuera gainditzen duen tokian badago.
- 8.7.** Publikoa ezingo da inolako kasutan pista baino beherago geratzen diren gunetan kokatu, gune hori publikoarentzat debekatuta dagoela adieraziko delarik.

- 8.8.** Zirkuituaren barnean, Lasterketako Zuzendariaren iritziz arriskutsua izango balitz, ezingo da publikoa kokatu, Komisarioak, Osasun-Zerbitzuak, garabiak, ureztapen-taldeak, eta behar bezala baimendutako idatzizko prentsa nahiz TV-ko ordezkariak egon ahal izango dira.
- 8.9.** Zirkuituan ala bere inguruetan, mediku bat duen anbulantzia bat egongo da gutxienez lehen sorospenak emateko ala zaurituak ateratzen laguntzeko, beharrezkoa balitz.
- 8.10.** Pistako ibilgailuen gehieneko kopurua HAMALAUkoa izango da, HAMASEIRAINO baimenduko direlarik zirkuituaren gutxieneko zabalera, bere punturik estuenean, 12 m baino gehiagokoa bada.
- 8.11.** Hautsak eraginiko ikuspen desegokia ekiditeko ureztapen-talde bat aurreikusita egongo da. Ikuspen desegoki bezala 20 m-ra ibilgailu baten matrikularen zenbakiak irakurri ezin denean kontsideratuko delarik.
- 8.12.** Zirkuituaren ibilbideko 100 m bakoitzeko erabiltzeko baldintzetan dagoen 5 kg-ko edukiera duen su-itxalgailu bat egotea nahitaezkoa izango da, horietako bat irteeran egongo delarik. Halaber boxes-en gutxienez 2 su-itxalgailu egongo dira eskuragarri.
- 8.13.** Lehiaketaren edozein unetan, Lasterketako Zuzendariak, gerarazi egin beharko du guneren batean baimendutako distantzia baino urriagora ala debekatuta bezala seinaleztatutako gunetan publikorik dagoela ohartzen bada.
- 8.14.** Arau hauek aldatu ala hedatu egin ahal izango dira Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioaren Zirkularren bidez.

## **9. Artikulua- PROBAREN GARAPENA**

- 9.1.** Maila bakoitzak entrenamendu ofizialak, sailkapenerako serieak eta finalak bereizita lehiatuko ditu. Hauen kronometrajea nahitaez 1/100 eran burutu beharko da.
- 9.2.** Antolatzaileek lasterketa osoaren sailkapenak burutu beharko dituzte, bai eskuz ala bai aurretiaz F.G.A.-k homologatutako programa informatiko batekin.
- 9.3.** Entrenamendu ofizialak
  - 9.3.1.** Irteerari ekiteko baimena duten partaide guztiek, kronometratutako entrenamendu ofizialetan hartu beharko dute parte. Txanda bakoitzean pistan gehienez 6 ibilgailu onartuko dira eta pista lehenengo ibilgailua sartzen denetik 5 minutu pasatakoan amaitutzat emango dira.
  - 9.3.2.** Entrenamendu ofizialetako irteera-hurrenkera, banakakoa izango da eta txanden eraketa ordenagailuko programak ezarritako hurrenkera aleatorioaren arabera ala zozketa bidez burutuko da.

**9.3.3.** Sailkapenerako txandetan toki bat izateko helburuarekin, partaideak burutu duen itzulirik azkarrenaren denbora kontuan izango da.

**9.3.4.** Kirol-Komisarioek entrenamendu ofizialak bere borondatez kanpoko eta justifikatutako arrazoiren batengatik burutu ez dituen partaide bati irteera baimendu ahal izango diote. Kasu honetan, partaide hau entrenamendu ofizialetako azkeneko sailkatua bezala hartuko da sailkapeneko serietako parrillak eratzeari dagokionean.

#### **9.4.** Sailkapenerako serieak

**9.4.1.** Entrenamendu ofizialetako itzuli azkarrean lortutako denborak ikusitakoan, Maila bakoitzerako zerrenda bat burutuko da, zein burututako denborarik urrienetik handienerako hurrenkeran eratuko baita.

**9.4.2.** Sailkapenerako txandei dagozkien bi ala serie gehiago burutzen badira, entrenamendu ofizialen zerrendako segidako bi ala ibilgailu gehiago serie berdinean aldi berean ez suertatzea kontuan izango da.

**9.4.3.** Lerroen artean gutxienez 8 metro egotea gomendatzen da eta mailakatuta egon behar dute, horrela, bigarren lerroari, pilotu bakoitzari, bere aurretik gune libre bat geratuko zaio eta hirugarren lerroan berdin. "Pole" a pistaren ertzean utzi beharko da, ondorengo krokisari jarraiki:

p.p.	XXX	XXX	XXX	
	XXX	XXX	XXX	8m
	XXX	XXX	XXX	
	XXX		XXX	
	XXX		XXX	8m
	XXX		XXX	
	XXX	XXX	XXX	
	XXX	XXX	XXX	
	XXX	XXX	XXX	

**9.4.3.** Parrilla bakoitzaren eraketa Iragarki-Taulan argitaratuta egongo da, entrenamendu ofizialak burutu ondoren.

**9.4.4.** Irteera semaforoaren bidez adieraziko da, argi gorria itzaltzean, edo bestela banderaren bidez.

Irteera faltsua izango da ibilgailu batek irteera-uneari aurrea hartzen dionean. Kasu honetan pilotu arau-hausleak bere ekintzari dagokion oharra jasoko du eta irteera berri bati ekingo zaio. Pilotu berdinak ekintza errepikatuko balu, hau kanporatu egingo da.

**9.4.5.** Piloturen bat irteera-parrillan aurkezten ez bada, bere tokia libre eta bete gabe utziko da.

**9.4.6.** Sailkapen-txanda bakoitzean 6 itzuli lehiatuko dira.



- 9.4.7.** Saillkapen-txandak kronometratu egin beharko dira finaletarako berdinketa hausteak burutzeko.
- 9.5.** Finalak.
- 9.5.1.** Maila bakoitzean final bat lehiatuko da.
- 9.5.2.** Piloturen bati final batean irtetea ezinezkoa gertatzen bazaio, bere postua bete gabe geratuko da eta bere saillkapena amaiera-saillkapeneko azkeneko tokia izango da.
- 9.5.3.** Bi pilotu ala gehiagori ezinezkoa gertatuko balitzaie final bateko irteerari ekitea, saillkapenari dagokionean, azkeneko postuak beteko dituzte final horretako irteera-parrillan zuten hurrenkera berdinari jarraiki.
- 9.5.4.** Finaletako irteera-parrillak 3-2-3-2 eran kokatutako 14 ibilgailuez (16 Kart-Cross) osatuko dira, aurreko krokisean adierazten den bezala.
- 9.5.5.** Saillkapenik hoberena lortzen duen pilotuak "pole position" deiturikoa hautatuko du. Bigarren saillkatuta geratu denak geratzen diren bi postuetako bat hautatu ahal izango du, baina lerroz aldatu ezin dela kontuan izanik.
- 9.5.6.** Final bakoitzean 10 itzuli lehiatuko dira.
- 9.6.** Helmuga – Parke itxia – Saillkapenak.
- 9.6.1.** Lasterketa amaitutzat emango da araudi berezian ezarritako itzuliak amaitzen direnean. Une horretan Lasterketako Zuzendariak laukizko bandera aurkeztuko dio lehenengo partaideari eta jarraian dituen guztiei. Dezelerazio-itzuli bat ematea gomendatzen da, aurreratu gabe, parke itxira sartu arte, helmuga eta boxes-erako sarbidearen arteko gunea nahikoa ez bada.
- 9.6.2.** Nahitaezkoa izango da parke itxian sartzea ibilgailuak finala amaitu ez badu ere.
- 9.6.3.** Parke itxian ezingo da konponketarik nahiz horniketarik burutu. Gidariak 5 minutu izango dituzte parkea uzteko bere ibilgailuak aparkatzen dituztenean.
- 9.6.4.** Parke itxiko araei dagokion edonolako arau-hauste burutzeak taldearen kanporatzea ekarri ahal izango du.
- 9.6.5.** Ez da beharrezkoa izango helmugako bandera hartzea nahiz itzuli kopuru jakin bat burutzea saillkatuta kontsideratu ahal izateko, Gipuzkoako Txapelketaren puntuaketari dagokionean.
- 9.6.6.** Lasterketaren amaierako parke itxia ez da irekiko –gutxienez- Maila bakoitzeko emaitza ofizialak argitaratu ondoren 20 minutu pasa arte.

**9.6.7.** Erreklamazioen aurkezpen-epea amaitutakoan, parke itxiaren irekiera jakinaraziko da eta taldeek bere ibilgailuak erretiratu ahal izango dituzte, ofiziozko erreklamazio ala egiaztapen baten objektu izan diren haiek izan ezik. Kasu honetan, ibilgailua zigilatu egingo da eta dagokion egiaztapenerako Komisario Teknikarien eskura jarriko da.

**9.6.8.** Amaierako Sailkapen Ofiziala F.G.A.-ri fax bidez probaren egun berean igorriko zaio.

### **10.Artikulua- PILOTUEK PROBAN ZEHAR DITUZTEN BETEBEHARRAK**

**10.1.** Ibilgailuak bere kabuz mugitu beharko dira, horrenbestez ibilbidean zehar hauek bultzatzea debekatzen delarik.

**10.2.** Debekatuta dago, eskusiorako arriskuarekin, lasterketari dagokion aurkako noranzkoan zirkulatzea.

**10.3.** Ibilgailuren bat beretzako, ala gainerako partaideentzako, egoera arriskutsu batean geratuko balitz, ofizialek bultza eta toki seguruago batera baztertu ahal izango dute. Erabat debekatuta dago pilotuentzat laguntza hau berriro martxan jartzeko aprobetxatzea.

**10.4.** Matxura ala istripuaren kasuan, pilotuak pistako komisarioekin elkarlanean aritu behar du ibilgailua segurtasun-gune batean jartzeko. Kasu horretan pilotuak automobila ahalik eta azkarren utzi beharko du.

**10.5.** Erabat debekatuta dago helmuga-lerrotik 100 metrora (lehenago ala geroago) geratzea, norbere borondatez kanpoko arrazoiren batengatik ez bada.

**10.6.** Debekatuta dago zirkuituaren ibilbideak gasolina hartzea, kanporatua izateko arriskuarekin.

### **11.Artikulua- ERREKLAMAZIOAK ETA APELAZIOAK**

**11.1.** Erreklamazio oro C.D.I.-an (171. Art. eta hurrengoak) hitzartutakoari jarraiki aurkeztu beharko da.

**11.2.** Erreklamazio oro idatziz aurkeztuko da eta Lasterketako Zuzendariari igorriko zaio, **1000 €**-ko zenbatekoa erantsita, eskudirutan, zein erreklamazioa justifikatu gabea bezala kontsideratzen bada ez baita itzuliko.

**11.3.** Erreklamazioak ibilgailu baten atal ezberdinen desmuntatzea eskatuko balu, erreklamazioa egiten duenak fidantza osagarri bat entregatu beharko du 2008 Gipuzkoako Txapelketa, Kopa eta Sariei dagozkion Agindu Komunen 14. Artikuluari jarraiki.

**11.4.** Lan eta ibilgailu-garraioak eraginiko gastuak erreklamazioa egiten duenaren kontura izango dira, erreklamazioa justifikatu gabea bada, eta erreklamatuaren kontura justifikatua bada.

- 11.5.** Erreklamazioa justifikatu gabea bada eta erreklamazioak eraginiko gastuak burututako gordailatzea gainditzen badute, diferentzia erreklamazioa egiten duenaren kontura izango da. Aldiz, gastuak urriagoak badira, diferentzia itzuli egingo zaio.
- 11.6.** lehiakideek apelaziorako eskubidea dute, C.D.I-ari dagokion 180. Artikuluan eta hurrengotan adierazitakoari jarraiki.